

# ***Artxandako Aktibazio Planaren eta ingurunearen ingurumen-egoeraren aurrean***

Bilboko eta Sondikako udalek bi udalerrietarako Artxanda hiri-inguruko parke gisa berreskuratzeko aurkeztu dituzten planen aurrean (Artxandako Aktibazio Plana, AAP), honako manifestu hau sinatzen dugunok erabaki dugu AAP horren jarraipena egitea, Bilbo, Sondika eta Erandioko udalerriek partekatzen duten eremuaren eta proiektu honen lurraldearen egoera globalki aztertzeko.

Erakunde sinatzaileetako batzuek prentsako titularren eta albisteen bidez aurkezpen eta asmoen adierazpen labur baten bitartez jardun horien berri izan genuen. Bilboko Udalari eskatutako eta geroago jasotako informaziotik ondorioztatu ahal izan dugu Artxandarako proposatzen den Aktibazio Plana ez dela **Plan Berezi** bat, plan horiek, hirigintza-tresnak izateaz gain, euren osotasunean landutako proiektu bat baitira, bere helburuekin, ekintza-proposamenekin eta eremu horretarako araudi espezifikoarekin, besteak beste.

**Plan Berezi** izendatu ez dutenez, ez dute jendaurreko azalpenik egin beharrik, ez dago oinarri juridikorik talde politikoak edo herritarren elkarteak alderdi interesdun eta/edo kaltetu gisa aurkezteko, eta ez da herritarren parte-hartzea errazten. Agian, Udal Gobernuak bere bideak dituela argudiatuko du.

Era berean, jokabide horrekin ez dute zertan Ingurumen-Inpaktuaren azterlanik aurkeztu eta ez da jasotzen degradatuak dauden eremuak ezabatzeko proposamenik ere, adibidez zabortegeiak, "Bilbo Metropolitarraren Lurralde Plan Partzialean" jasotako Artxandako parkearen azken proposamenak adierazten zuen moduan.

Sondikako eta Bilboko alkateek eta Hirigintzako zinegotziak berriki jendaurrean aurkeztutako Aktibazio Planak 2020an BI-3741 errepidearekin lotuta egindako jarduketa batzuk jasotzen ditu, eta aldi berean, 2021ean Enekuri eta Santo Domingo arteko 6

kilometroko ibilbidea egingo den "Artxandako begiratokiaren pasealekua" deritzona aurreratzen du.

Ezer baino lehen, adierazi nahi dugu, prentsa-oharrean adierazten den bezala, "Egungo BI-3741 errepidea ibilbide osoan oinezkoentzako ibilbide segurua duen hiri-eremu bihurtzea, begiratokiekin eta 3 lurzatitan hobetzeko jarduketekin" egokia eta positiboa iruditzen zaigula. Batez ere, hain oldarkor ez den mugikortasunaren aldeko aldaketa izan daitekeelako, eta inguruko erabiltzaileen bizi-kalitatea hobetzeari lehentasuna ematen diolako.

Hala ere, ezin dugu ahaztu Artxandako ingurunea oso degradatua eta oso kutsatuta dagoela. Errepaso bat:

- Santo Domingon hainbat zabortegi abandonatuta daude, batek hondakin toxiko eta arriskutsuak ditu eta, horien artean, Lindano pestizidaren hondakinak.

- Artxanda eta Enekuri artean, Berrizen, Bilboko hiri-hondakin solidoen zabortegi zaharra dago, non Lindano eta beste produktu arriskutsu batzuen hondakinak ere badauden, eta, horren ondoan, Sondikako hondakin geldoen hondakindegia, gaur egun aktibo dagoena.

- BI-3741 errepidea jarraituz, Erandion, eraikuntzako hondakin geldoen Volbas zabortegia dago, hori ere martxan.

- Nerbioi ibaiaren ondoan, Sondikako Sangroniz industrialdean, industria-hondakinen zabortegi abandonatu zaharra: PREMABI zabortegia.

Horiek guztiek lixibiatuen zamarekin eta kutsadurarekin Asua ibairantz eta Nerbioiko estuariorantz isurtzen diren jariatze-urak dituzte, eta kaltetutako bizilagunak egoera hori etengabe jasaten eta salatzen ari dira, konponbiderik gabe oraingoz.

Zona deskontaminatzea eta erremediatzea premiazkoa da. Hala ere, zabortegi zaharra aztertze eta ondoren deskontaminatzeko jarduketak egin behar dira, legeak hala aginduta. Bilboko Udala da

erantzule nagusia, kutsadura horren eragilea delako, eta ez BIDEZAIN SL enpresa, "Borondatez", edo industria-hondakinen zabortege berri bat instalatzeko baimenak lortzeko truke-txanpon gisa.

**Hala adierazten du Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzaren Ebazpenak**, eta horretara behartzen du ingurumen-legediak. Era berean, uste dugu lurzoruen deskontaminazio eta erremediatze hori zabortege horretan egin behar dela, bai eta Artxandako eta inguruko Aktibazio Planak jasotzen duen espazio osoan zabortege zaharrek kutsatutako gainerako lurzoruetan ere.

Ezin ditugu bereizi Artxandako plan honetan garatu beharreko jarduerak eta eremuan zabortege berriak ezartzeko benetako aukera, eremu hori beharrezkoa baita Bilboko eta haren eskualdeko biztanleen aisialdirako, Bilbo Metropolitarraren Lurralde Plan Partzialean jasotzen den bezala. Zabortege berri batek Plan honekin talka egin lezake.

Hori dela eta, Zaldibarko eraispnaren esperientziaren eta "hondakin ez-arriskutsuak" (mota guztietako industria-hondakinak) izeneko beste zabortege batzuetan sortutako arazoaren eta inpaktuaren ondoren, uste dugu beharrezkoa dela honako irizpide hauek barne hartuko dituen eztabaida zabal bat sustatzea: hondakinak sortze, berreskuratzea eta birziklatzea; zabortege berriak behar diren ala ez eta horien lurralde-kokapena; zer hondakin sailkatu behar diren eta haien jatorria; eta hondakinak zerbitzu publiko moduan eta ez negozio pribatu gisa kudeatzeko beharra.

Faktore eta baldintzatzaile horiek guztiak kontuan hartu behar dira Artxandako eremuan eta haren inguruan edozein jarduketa gauzatzeko. Eta AAPak ere kontuan hartu behar ditu, eta, hildo horretan, inpaktuak eta eraginak murrizteko eta ingurumena hobetzeko proposamenak jaso behar ditu.

Horren harira, berresten dugu AAPa ezin dela izan tresna bat beste hirigintza-tresna batzuek (Plan Berezia, Bilboko HAPOa bera, Bilbo Metropolitarrako LPPa)betetzet dituzten eskakizunak alde batera uzteko; aitzitik, zorrotz bete behar ditu eskakizun horiek, eta, are gehiago, horiek gauzatzeko orduan herritarren parte-hartzea bermatu eta bultzatu behar du.

#### HAU ADIERAZTEN DUGU:

1. Artxandako ingurunea urte luzez abandonatu ondoren, bizilagun guztien eta Bilboko zein inguruko biztanleen bizitza eta bizigarritasun-baldintzak hobetzeko jarduketak egiten ari diren heinean, gure balorazio positiboa.
2. Proposamen honek, Artxandarako aurreko proiektuetan ez bezala, ez du eremua bere osotasunean hartzen. Planak jarduerak proposatzen besterik ez ditu egiten. Hau da, aipatutako jardueraz gain, ez ditu aldi berean ingurunea leheneratzeko eta hobetzeko neurriak jasotzen kutsatutako lurzorua deskontaminatzea eta konpontzea esaterako.
3. Beharrezkoa da helburu argiak dituen proiektua, jarduerak arautzeko eta ingurunea leheneratzeko neurriak proposatzeko Plan Berezi bat abian jartzea. Plan bat, herritarren parte-hartzearekin, araudiarekin, planaren erakusketa publikoarekin eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioarekin.
4. Asua ibaira eta Nerbioiko estuariora Erandioko bizilaguneei hain eragin negatiboa dituzten egindako lixibiazioen ondoriozko isuriek eta inguruneko afekzioak ezabatzeko ingurune osoa deskontaminatzeko eta konpontzeko premia larria.
5. Bilboko hiri-hondakin solidoen zabortegi zaharrea zegoen lekuan beste zabortegi bat instalatu baino lehen, beharrezkoa da eztabaidaren erdigunean hondakinen kudeaketa, zabortegiaren kokapena, kontrol publikoa, isuri beharreko hondakinen sailkapena, jatorria eta beste erabilera batzuekiko bateragarritasuna zein "hondakin ez-arriskutsuen" (hondakin-industrialak) kudeaketa eta negozio pribatu eredia jartzen dituen alde aurreko eztabaida parte-hartzaile eta gardena egitea.

## **Sinatzaileak:**

Erandioko Herri-Bideak Kate-barik Elkartea eta Auzokoak Herriko Elkartea, Asociación de Vecinos Plataforma Artxanda, Asociación Zubi Artean de Deusto, Federacion de AAVV de Bilbao, Gure Etxea de Uribarri, Ekologistak Martxan Bizkaia, Zero Zabor Bizkaia Elkargunea

***Bilbon, Erandion eta Sondikan, 2021ko ekainaren 24an***